

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2021

Joan den martxoaren 30ean Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena, 2021eko ekitaldiari dagokiona.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du **diru-sarrera korronteek** nabarmen egin dutela gora aurreko ekitaldiaren aldean (% 20,8), foru aldundiek (FFAA) ekarpen handiagoa egin dutelako eta Estatuko Administrazio Orokorraren transferentzia arruntak ere handiagoak izan direlako, COVID-19aren ondorioak arintzeko. **Gastu korronteek**, berriz, igoera txikiagoa izan dute (% 8,9), langileen gastuen eta gizarte-gastuen igoerak, osasun-gastuen eta kanpo-zerbitzuen igoerak eta foru-aldundiei eta sektore pribatuari egindako transferentzien hazkundeak eraginda. Horrek guztiak 1.453,8 milioi euroren **aurrezki gordina** sortu du eta horrek aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 547ko igoera eragin du.

Ekitaldiko emaitza korrontea aski izan da inbertsio garbia finantzatzeko, zeina 224,4 milioi euro txikiagoa izan baita. Nolanahi den ere, **zorpetzea** areagotu da 497 milioi euroan eta horrek eragin du 2021eko ekitaldiko aurrekontu-saldoak 1.043 milioi euroren superabita izatea.

Aurrekontuaren egonkortasuneko eta finantzaren iraunkortasuneko helburuen jarraipenari dagokionez, bertan behera utzi ziren ezarritako helburuak, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta, honenbestez, 2021eko ekitaldiari dagokionez, helburu horiek ez dira aplikagarriak, eta erreferentzia gisa ulertu behar dira. Ogasun Ministerioaren 2022ko azaroko jarraipen-datuek erakusten dutenez, EAeko superabita % 0,9koa izan zen 2021ean, eta zor publikoa % 15,6koa, biak BPGaren gainean kalkulaturik, eta, beraz, ez zituzten ezarritako erreferentziazko mugak gainditu.

Epaitegiak ondorioztatu du EAEko Administrazio Orokorrak **zuzentasunez bete duela** ekitaldian zehar ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen **lege-araudia**, nahiz eta **kontratazioan** unean uneko akatsak antzeman diren, hala nola, espediente bat larrialdi-prozeduraren bidez izapidetu da, aitortutako obligazioen ordainketa behar bezala justifikatu eta baimendu gabe, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak txosten negatiboa jaulkia zuela, kontratazio-espediterik ez izateagatik eta publizitate- eta lehia-printzipioak ez betetzeagatik.